



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

# VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren Neurketa

Datuen azterketa, ondorioak eta proposamenak

2017ko irailean

[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)

**Izenburua:** VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren Neurketa.

**Egilea:** Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

**Argitaratze-data:** 2017ko irailaren 19a

**Ale kopurua:** Argitalpen digitala ([www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus) atarian eskuragarri)

<b>0. Sarrera</b>	4
<b>1. Metodologiaz</b>	5
<b>2. Ondorio nagusiak</b>	10
A. Hizkuntza-gaitasuna	12
B. Gaitasun erlatiboa	13
C. Lehen hizkuntza	14
D. Erabilera	17
E. Jarrerak	19
F. Kale erabilera	19

**2017** an Inkesta Soziolinguistikoak, batetik, eta Euskararen Kale Erabileraren Neurketak, bestetik, euskararen normalizazioaren inguruko diagnostikoa osatzen lagungarri suertatzen den datu asko eskaini dizkigute. Eskertzekoa eta ezinbestekoa da halako azterlanak izateko egiten den ahalegina. Bizi dugun egoera ahalik eta egokien ezagutzea ezinbestekoa baita egoera hori eraldatu nahi dugunon jarduna eraginkorra izan dadin.

Datuek, ordea, ezer gutxi esaten dute, horiek testuinguruan kokatu ezean, edota informazio erabilgarri bihurtzen ez baditugu. Datuak informazio bilakatze horretan, ahalik eta 'objektibotasun' eta 'zorroztasun' guztia baliatu nahi izanda ere, beti sartzen dira jokoan, gehiago edo gutxiago, norberaren ikuspegia eta aurreiritziak. Hori onarturik, Kontseilua, ohi bezala, jasotako datuei euskararen beharretatik begiratzen eta horren arabera irakurketa egiten saiatu da. Dokumentu honetan jaso dugu ariketa horrek utzitako emaitza.

Honako lan honetan, datuen azterketara zuzenean sartu ordez, lehen-lehenik arlo metodologikoari lotutako iruzkin batzuk jaso dira. Datuen azterketaren aurretik egitea beharrezkotzat jo dugu, hein batean ondoren etorriko diren irakurketak baldintzatzen baititu. Izan ere, datuak ezagutzea garrantzitsua den bezala, datu horiek zer nola eskuratu eta kategorizatu diren jakitea ere beharrezkoa da, hauek modu egokian 'irakurri' ahal izateko.

Metodologiaren ondotik, ondorio orokorrak azaldu ditugu. Halakoetan orokortzeak ñabardurak galtzea dakar, baina zuhaitzei begiratu ondotik, basoa osotasunean irudikatzea

ere beharrezkoa da ikuspegia osatze aldera eta datuen irakurketak aurrera begira eman ditzakeen pista eta ikasgaiak identifikatzea ere garrantzitsua da aurrera begira lanerako bide berriak arakatzeko. Hori izan da gure asmoa, behintzat.

Azkenik, arloz arloko edo atalez ataleko datuen irakurketa eta horien gaineko zenbait neurri zehatz ere jaso dira. Jasotako proposamenei dagokienez, pare bat argipen egitea komeni da. Batetik, soilik aztertutako datu zehatzak hobetzeko zenbait neurri posible jaso direla. Bestetik, kasu askotan elkarren osagarri diren eta atal desberdinetarako balioko luketen neurriak direla. Kasu horietan, dokumentuaren irakurketa errazte aldera ez dugu atal guztietan jaso beharreko neurriak errepikatzen jo.

Horiek esanda, espero dugu dokumentua lagungarri suertatzea esku artean dugun datu eta informazio-jasa horretan. Balio dezala, beraz, zenbait ideia argi ateratzeko, bai eta, testuinguru horretan, Kontseiluak mahai gaineratu ditzakeen proposamenak hobeto ulertzeko ere.

Inkestek ez digute balio errealitatea hobeto ezagutzeko soilik, errealitatea bera ere moldatzen baitute inkestek. Maria Braun soziologo argentinarrek dioten bezala: *Inkestek 'izaera performatiboa' dute: ez dute soilik ikertzen den objektua deskribatzen, berau sortzen eta eraldatzen ere eragiten dute.* Berdina esan genezake, noski, inkesta hauen gainean egiten diren interpretazioen inguruan ere. Alegia, inkesten inguruko irakurketetan zabaltzen diren edo egituratzen diren diskurtsoek izaera performatibo hori dute, eta beraz, horrek tentu handiz jokatzera eraman beharko gintuzke, batik bat, gizarteratu nahi ditugun ondorioekin.


Inkesta soziolinguistikoan badira izaera performatiboari lotutako adibide garbiak. Horrela, zoritxarrez, esan beharko dugu lehen inkestak egin zirenetik ez bezala, oraingoan, Euskal Herriko datuak ez ditugula eskuragarri VI. Inkesta Soziolinguistikoan. Bai, inoiz ez bezala, oraingo honetan, Euskal Herriko datuak beharrez *euskararen eremu oso*ko datuak baititugu. Fitxa teknikoan irakurritakoarengatik, pentsatzen dugu ez dela izango diaspora aintzat hartzeko asmoa zutelako inkestaren egileek. Ez dakigu zein arrazoik eraman dituen halako aldaketa bat, hautu bat, egitera, baina, argi dagoena da txosten osoan zehar Euskal Herria hitza behin ere ezin irakurtzea ez dela ausaz gertatukoa izan eta atzean intentzio politiko jakinen bat egon badagoela.

Halere, horretaz gain, inkestak baditu ikerketa objektua eraldatzea ekar dezaketen jatorrizko gabezia batzuk; hain zuzen ere, ondoren egin litezkeen interpretazio okerretarako bide eman dezaketenak.

Azterlan honetan, *ilusio optiko* gisa izendatu ditugu hiru gabezia horiek. Basamortuko ilusioen optikoen antzera, inkestan gauzak nola azaltzen diren aztertuta, ezer ez dagoen tokian oasiak ikustera eraman baikaitzakete.

Hona, aipatutako hiru ilusioak:

- **Multzo banatuen ilusio optikoa:** Inkesta soziolinguistikoak euskararen gaitasunaz hitz egiten duenean, ondorengo irudia ematen digu:



Irudi hori hizkuntza-multzo edo hiztun-elkarte gisa irudikatuko bagenitu beraz, ondorengo irudikapena egin beharko genuke.

## IRUDIKAPENA. ILUSIO OPTIKOA



ERDALDUNAK

VS

EUSKALDUNAK


VS'

EUSKALDUN-HARTZAILEAK



Argi dago, ordea, gure gizartea ondotoz bestelakoa dela. Alegia, multzo horiek edo hiztun-elkarte horiek elkarrekin harremanean daudela. Datuak, beraz, ez dira zuzenak bere horretan eta sortzen duten irudikapena okerra da. Irudikapen egoki batera, multzoen osaera, gutxi-asko, ondorengoa litzateke:

erdaren betaurrekoetatik begiratuta. Horrek sor dezakeen ilusio optikoa gehiago argitzeko, 2016ko kale erabileraren datuak ere sartu ditugu. Hortaz, euskararen inkestako irizpideei jarraiki, ondorengo datuak eta grafikoak izan genitzake.




Esan dezagun, beraz, euskaldun guztiak elebidunak direla ahazten dutela Inkestako gaitasun-datuak eta horien irudikapenak. Eta horrek eragina izan dezake irudikapen posibleetan zein ondorioetan.


Errazago ulertze aldera, demagun, euskararen VI. Inkesta beharrean, erdaren VI. Inkesta egin eta Azpeitiko datuak ditugula aztergai. Hau da, datuak euskararen betaurrekoetatik ikusi beharrean,

## HIZKUNTZA-GAITASUNA


Erdararen eremu partziala, Azpeitia (2016)




Euskararen kale-erabilera, Azpeitia (2016)



Argi dago, *erdalgintzako* kideak erabat aztoratuta ibiliko liratekeela, datu horiek ezin ulertu. Halere, erdaldunak kontatzetik hasiaz gero eta multzo banatuen ilusioan eroriz gero, gaztatxoak ehun eman behar duenez, halako aldrebeskeriak aterako litzaizkiguke. Halere, hori ez da datu eta irudikapen oker bakarra. Erdaldunen bilakaeraz ari delarik, inkestak 15eko jaitzieraz hitz egiten du 1991tik (%70) 2016ra (%55,2) bitartean. Horrela irudikatu zitekeen beraz:



Ikusi besterik ez dago, gure inguruetan, erdaldunak nola ari diren desagertzen, horrela segituz gero, urte batzuen buruan alerik ez dela geratuko irudika genezake. Hemen ere, errealitatea, ondotxo bestelakoa da ordea:



Erdararen -hemen gaztelania/frantsesa jartzea zorrotzagoa litzateke- gaitasuna, ongi ezaguna den bezala, ez da ehuneko bakar batean ere murriztu Euskal Herrian.

- Goazen bigarren ilusioarekin: **kategorizazio desegokien ilusio optikoa**, hain zuzen. Horrek

ere gaitasun-datuekin du lotura zuzena. Gainera, aurretik aipatutakoaren jatorria, hein handi batean, hemen egon liteke –hori inkesta egileek argitu beharko luketen arren-. Izan ere, gaitasun-datuen emaitzak emateko garaian, Inkesta Soziolinguistikoetan erabilitako kategoriak aldatuz joan dira. Gainera, gure ustez, aldatzen hori okerrera joan da. Eta ez diogu, okerrera, gustuko kategoriak ez ditugulako edo beste batzuk nahiago genituzkeelako. Aitzitik, kasu honetan ere, kategoria egokiagoak erabil litezke errealitatea deskribatzeko eta ez behar baino gehiago performatzeko. VI. Inkesta Soziolinguistikoan ondorengo kategoriak erabiltzen dira:

- Euskalduna
- Euskaldun hartzailea
- Erdalduna

Ez da inon ageri, ordea, zein kontsiderazio eman beharko geniokeen kategoria bakoitzari. Lehenengoan eta azkenekoan bakarrik zentratuta: Zer da euskaldun izatea? Euskaraz ulertzeko (ahoz nahiz idatziz) eta hitz egiteko (idazteko ere?) gai izatea, pentsa liteke. Eta erdalduna izatea? Berdin, erdaraz ulertu (ahoz nahiz idatziz) eta hitz egiteko (idazteko ere?) gai izatea. Ez gara luzatuko, baina, Lorea Agirrek 2015eko Korrikaren amaierako mezuan egiten dugun hori garelako zioen eta Mikel Zalbidetik hainbat hitzaldi eta testutan<sup>1</sup> ere ezbaian jarri izan du euskaldun kategoriaren ulermen hori. Eta orduan, elebidunak zer dira? Euskaldunak, erdaldunak, euskaldunak erdaldunak baino gehiago, erdaldunak euskaldunak baino gehiago ...

Eztabaida antzuetan sartu baino, esango genuke, hobe dela kategorizazio horiek baztertzea eta hobeak bilatzea. Bide batez esan dezakegu dezente argiagoak ziren aurreko Inkestetan erabilitakoak, eta bidean zehar, norik jakin zergatik, Euskal Herria bezala, desagertuz joan direnak:

<sup>1</sup> Ahoa betean jarraitzen dugu ordea, are soziolinguistikazko ikuspegitik dihardugunean, euskaldun horrek euskaradun esan nahi duela azpimarratzen. [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834)

## KATEGORIEN ERABILERA HISTORIKOA

V. Inkesta Soziolinguistikoa (2011)	Elebidun Erdaldun
IV. Inkesta Soziolinguistikoa (2006)	Elebidun Erdaldun elebakarrak
↓ Aurrekoetan berdin	

Horiek ere, zehazteko modukoak izan litezke, eta halakoetan beste leku batzuetan gauzak nola egiten diren ikusi eta, akaso, hortik ikastea ere baliagarria suertatzen denez, Kataluniako eredu<sup>2</sup> begiratu eta bertan erabiltzen diren kategoriak hona ekartzeko modukoak izan daitezkeelakoan gaude. Kasu horretan, hizkuntza-gaitasuna aztertzeke, ohiko lau hizkuntza-gaitasunen arabera datuak ematen dituzte, zehazki, ondorengo kategorien arabera:

- Ulertu
- Hitz egin
- Irakurri
- Idatzi
- Ez dute ulertzen

Esango genuke, errealitatea deskribatzeko, kategorizazio egokiagoak direla horiek. Bide batez, egungo inkestak ematen ez dizkigun eta hizkuntza-politikak zorrotzago modulatzeko baliagarriak suertatuko lirakeen xehetasunak eskainiko lizkigukete kategorია horiek.

Bada azken kategorizazio bat, emaitzetan aurrekoek bezain besteko eraginik ez duena, baina izaera performatiboa ere izan dezakeena. Kasu honetan, lehen hizkuntzari lotutako kategoriak lirake. Hona erabiltzen direnak:

- Euskaldun zaharra
- Jatorrizko elebidunak
- Euskaldun berriak

Kasu honetan, kurioa da, gai berarekin, aurreko atal batean, lehen hizkuntza 'euskara', 'euskara eta erdara' edota 'erdara' izan dutenak kategorizatzen baititu, baina bat-batean, horiek ahaztu eta dezente konnotazio gehiago dituzten kategoría berri horiek agertzen dira.

Honetan ere ez dugu luzatu nahi kategoría horiek izan dezaketen pisu performatiboa azaltzen, horren inguruan lehendik idatzitakoak<sup>3</sup> aipatzera mugatuko gara. Hori esanda, lehen hizkuntza zein duten jartzea nahikoa izan daitekeela deritzogu. Edota, bestela, jatorrizko hizkuntzaz hitz egingo badugu, jar dezagun kasu guztietan jatorrizko hizkuntza:


- Jatorriz euskaldunak
  - Jatorriz elebidunak
  - Jatorriz erdaldunak
- 
- Bukatzeko hel diezaiozun hirugarren eta azken ilusio optikoari: **kopuru erlatiboan ilusioa optikoa**. Kasu honetan, gaiak ez du azalpen gehiegi behar. Kopuru erlatiboak besterik ez emateak azterketa bera dezente kamusten duela nahiko ageriko gabezia dela iruditzen zaigu. Izan ere, hala eginda, kategoría desberdinetako pisu demografikoa jakiterik ez dago eta, argi dago, horrek egoera soziolinguistikoa goitik behera baldintzatu dezakeela.

<sup>2</sup> Datuak hemen ikusgai: <https://www.idescat.cat>


<sup>3</sup> Lan sakon eta erreferentziakoa: Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Esti Amorrortu, Ane Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña (2009). Interneteko zenbait lotura: <http://blogak.eus/garaigoikoa/zelan-gaunditu-berri-eta-zaharren-arteko-dikotomia> [http://kanalak.berria.eus/euskara/kolaboratzaileak/997/euskaldunberritik\\_euskaldun\\_herrira.htm](http://kanalak.berria.eus/euskara/kolaboratzaileak/997/euskaldunberritik_euskaldun_herrira.htm)



Ilusio optiko hori ilustratzeko, ekar dezagun hona ere azken adibide bat. Kasu honetan, adinaren arabera euskararen gaitasunari lotua:



Hori ikusita, 16-24 urteko adin-taldearen eta hortik beherakoen pisu demografikoa ezagutu gabe, badirudi ezagutzaren bidea (ia) egintzat eman dezakegula. Badirudi denbora kontua dela belaunaldi berriek gizarte osoa euskalduntzea. Halere, gauza dezente aldatzen da adin tarte horretako biztanleen eta adin horretatik beherakoen pisu demografikoak ezagutzuz gero. Hona datuak<sup>4</sup>:



Horrela, 16-24 adin taldekoak 2.100.000ko unibertso batean 161.000 besterik ez direla jakiteak ikuspegia dezente osatzeko eta aldatzeko aukera ematen du. Are gehiago, adin horretatik beherako guztiak aintzat hartuta ere, ez dira 467.000ra iristen (biztanleria osoaren %22) jakinda. Grafikoak eskaintzen duen ikuspegia ere ondotoz bestelakoa delakoan gaude. Euskararen gaitasuna belaunaldi berrietan gorantz doan arren, jaiotze-tasaren murrizketak, gizarte osoko kopuru absolutuetan eragin nahiko mugatua duela nabarmentzen baita. Horrela, kontuan hartu behar da EAEko 631.000 elebidunek, elebidun izatera heldu ez diren (elebidun hartzaile eta erdaldun elebaker) ez dakiten 1.200.000 herritarrekin elkarbizitza garatu behar dutela.

Hortaz, lehen argazki batean, euskarazko hezkuntzan sakondu eta denbora kontua irudika litekeena, bigarren argazki batean, gutxien-gutxienik, helduen euskalduntzerako apustu, bitarteko eta neurri zehatzekin osatu beharko litzatekeela dirudi.

Datuen azterketan zehar bestelakorik aipatu litekeen arren, uste dugu aipaturako hiru atalekin nahiko agerian geratzen dela halako ikerketek, zientziaren eta objektibotasunaren aterkipean, jendearen ikuspegiak eta iritziak modulatzeko, 'ikerketaren objektua performatzeko', izan dezaketen eragina. Larriagoa da, ordea, izaera performatibo hori propio edo norberak nahieran baliatzeko intentzioz baliatzea. Dena dela, hori ere ikuspegi propioa izan liteke, esan bezala, ilusio, errealitate edota optika diferenteak.

4 2015eko datuak <http://www.eustat.eus> webgunetik aterata

- Aurreko Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak aurkezterakoan, Soziolinguistika Klusterreko kideek honako ondorio hauek mahai-gaineratu zituzten:

**“Egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen [kale] erabilerak goia jo du (...) Ez dago hobekuntza tartetik euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten ez badu eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik eskaintzen ez bazaie. Hau da, erabilerak ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira.”**

Irakurketa horrekin bat egiten dugu. Agerikoa da belaunaldi berriak dezente euskaradunagoak datozen arren, erdalduntzen dituen gizarte-bizitzaren eta sozializazio-prozesuaren kontra borroka egin beharrean direla. EAeko datuak ezagutu genituenean esan bezala, ume eta gazte euskaldunak talka egiten ari dira kristalezko sabai bilakatu zaien gizarte heldu erdaldunarekin. Kopuruz eta ahalez nagusi den helduen eremu erdaldunduak korranteak markatzen ditu gizarte-bizitza horretan.

- Esan dezakegu, ahalegin nagusia hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskalduntzean jarri duen hizkuntza-politikaren mugak agerian geratu direla.

Zoritxarrez, orain artean behintzat, gezur sozial horri eutsi zaio. D ereduak euskaldunduko balu bezala bizi gara, eta zoritxarrez, transmisio hori gizarte-bizitzako beste esparruetara zabaltzeko bideak eten nabarmena du. ARRUE ikerketa txostenean ondorioztatzen den bezala:

**“Esan daiteke ikasle gazteagoetatik helduagoetara konbergentziarako joera erakusten dutela datuek gizarteko hizkuntza erabileraren arau nagusiekiko”**

Gainerako eremuetan euskararen erabilera ahulegia da. Euskara irabazteko bidean liburuan Joxerra Gartzia dioen bezala,

**iraupen fase bat egon da hemen... Iraupen baldintzak hobetu diren honetan, estrategia ezin da izan irautea. Hortik gorako zerbait izan behar da.”**

Gehitu diezaiogun, bada, hizkuntza-politikak iraupen paradigmatic, normalizazioaren paradigmara egin beharko lukeela salto.

- Garai batean, euskaldunok **gutxiagotasun konplexua** ezagutu bagenuen, gaur egun **ikasitako babesgabetasuna**<sup>5</sup> delakoa ezagutzen dugu. Lehendik ere hitz egin izan digute gure egunerokoak euskaraz bizi nahi izaten dugunok jasan behar izaten dugun

5 Ferran Suay psikologo valentziarrak eta TELP tailerren sortzaileak idatzi izan ditu horren inguruko zenbait artikulu: [http://paperekoa.berria.eus/papera\\_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2008&hilabetea=m10&eguna=d20081010&orria=p00018006](http://paperekoa.berria.eus/papera_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2008&hilabetea=m10&eguna=d20081010&orria=p00018006)

**estres linguistikoaz**<sup>6</sup>. Kontua larriagoa da, ordea. Izan ere, jardungune batean eta bestean euskaraz hitz egiteko ahalegina egin eta lortu ez duenak, estresaz harago, egoera sozialera egokitzeko jokabidea izango du. Are gehiago ikusten badu ez duela beste aukera askorik, beste inork ez duela bere euskarazko jarduna babesten edo laguntzen eta lege-indarra edo instituzioena ere ez duela bere alde. Kasu gehienetan, beraz, bizitza sozialaren arauak bere baitan txertatu eta halako gertakizunen ondotik erdaraz jarduteko bidea hartuko du.

- Etorkizunera begira jarrita, bada gure ustez mahai gaineratu beharreko beste ideia bat: **Erabilera eroso**. Erabilera aztertzerakoan, argi dago erabilera kate luze baten azken katebegia dela. Alegia, katebegi guztiak ongi lotuta eta koipeztuta ez badaude, zaila da katea ongi mugitzea eta ez herdoiltzea. Erabileraz hitz egitekoan, beraz, erabilera eroso egiteko baldintzak aztertu behar dira. Hau da, herritarrak ahalegin berezirik egin behar izan gabe, euskara eroso erabiltzeko zer nolako baldintzak behar diren eta zer nolakoak dauden.
- Erosotasunak bi dimentsio izango lituzke: Batetik, indibiduala, norberari lotzen zaiona. Kasu horretan argi dago gaitasun egokia izan behar dela eroso aritzeko. Alegia, euskal elebidunak edo elebidun orekatuak izango dira euskara erosotasunez erabiltzeko gaitasuna dutenak. Halakorik ezean, ahalegina eta nekea alboan izango dute euskara erabili nahi dutenek. Datuak aztertuta, elebidunen gorakada nabarmena da, baina ez hainbestekoa euskal elebidunena edota elebidun orekatuena. Horregatik, alderdi horretatik, erabilerarako baldintzak ez direla hainbeste hobetu ondoriozta dezakegu.
- Erabilera erosoaren bigarren dimentsioa soziala litzateke. Dimentsio horri lotutako aldagaiak asko dira: elebidunen dentsitatea eta kontzentrazioa, euskaraz egiteak izan dezakeen onarpen soziala, jardun-guneetako erabilerarako arau sozialak,

hizkuntzaren prestigioa ... Kasu horretan, ezagutza handitu den arren, lehendik aipatutako elebidun tipoa (erabilera eroso gaitua) ez da hainbeste handitu eta jakina da, gainera, azken urteotako elebidunen gorakada erdal eremuetan eman dela<sup>7</sup> nagusiki. Horrek elebidun berri horiek erabilera eroso baldintza makurrak dituzten eremuetan barreiatuta (dentsitate eta kontzentrazio apalarekin) egotea ekarri du.

- Horrek guztiak lehendik aipatutako hizkuntza-politiken sakoneko berrikuspenera egitea eskatzen digu. Hizkuntza-politikak birpentsatu behar ditugu. Bide horretan, bada garaia hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatzeko; bada garaia administrazioko sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko; bada garaia instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko.
- Eta hizkuntza-politika berrabiarazi behar den arren, ez gara hutsetik abiatzen, ez dugu orri zuria. Orain artekoaren balorazio kritikoa eta irakaspenak aintzat hartu eta badugu esku artean, orain arte Euskal Herrian inoizko gizarte eragile gehien adostasuna biltzeko gai izan den eta Europa mailako hizkuntza gutxiago ia guztietako gizarte eragile nagusien babesa eskuratu duen iturburuko kodea. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak oinarri ezin hobea eskaintzen digu aipatutako hizkuntza-politikaren berrikuspenera egin ahal izateko.

<sup>6</sup> Estres linguistikoa esaten zaio norekin, non, noiz, zein hizkuntza aukeratu erabaki beharri. Hizkuntza bakarra dakienak ez du zalantzarik; eta dakien hizkuntza hizkuntzarik boteretsuena bada, ez du izaten berea erabiltzeko zilegitasunaz dudarik. Ez du izaten estres linguistikorik. [http://www.badubada.com/eu/erakusketa/bizikidetz\\_estres\\_linguistikoa.php](http://www.badubada.com/eu/erakusketa/bizikidetz_estres_linguistikoa.php)

<sup>7</sup> IkusUDALERRI EUSKALDUNAK EAEn: EGOERA ETA BILAKAERA, 1981-2011 (2015, 29) [http://www.soziolinguistika.eus/files/udalerr\\_i\\_euskaldunak\\_eaen\\_1.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/udalerr_i_euskaldunak_eaen_1.pdf)

## A. HIZKUNTZA-GAITASUNA

<b>Datu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• % 28,4 elebidunak (751.500)</li><li>• % 16,4 elebidun hartzailea eta % 55,2 erdaldun elebakarra</li><li>• 25 urtean 6 puntu igo da</li><li>• Erritmo horretan 130 urte inguru beharko dira gaitasuna unibertsalizatzeko</li><li>• Herrialdeka alde handiak daude: Gipuzkoan eta Nafarroa Beherea/Zuberoan antzeko datuak dituzte: %50,6 elebidun/%17,3 elebidun hartzaile eta %49,5 elebidun/%13,7 elebidun hartzaile hurrenez hurren. Lapurdin eta Nafarroan ere nahiko datu paretsuak %16,1 elebidun/%8,7 elebidun hartzaile eta %12,9 elebidun/%10,3 elebidun hartzaile. Gainerako herrialdeetan alde handiagoak dira: Araban %19,2/%18,4 eta Bizkaian %27,6/%20,4.</li><li>• Hiriburuen kasuan <sup>8</sup>, herrialdeko datuen azpitik dabilta elebidunen datuak.: Gasteizen 1,3 puntu behetik, Bilbo 9 puntu, Donostia 15,2 eta Iruñea 2,4</li><li>• Adin-taldeen arabera, multzorik elebidunena 24 urtetik beherakoena da. Herrialde guztietan errepikatzen da hori Ipar Euskal Herrian izan ezik, non, multzorik elebidunena 65 urte baino gehiagokoek osatzen jarraitzen duten.</li></ul>
<b>Zenbait ondorio</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Eremu administratiboan eta herrialdeen arteko desorekak nabarmenak dira: Nafarroaren kasuan, diferentzia are eta ageriagoak zonifikazioak markatutako eremuen artean. Horrek agerian jartzen ditu eremuz eremu urteetan garatutako hizkuntza-politika desberdinen ondorioak. Kontuan hartu behar da, leku batzuetan gaur-gaurkoz euskarak ez duela estatus legalik eta besteetan estatus legal mugatua duela. Horrek euskaren garapen soziolinguistikoa baldintzatzen du.</li><li>• 25 urtean 6 puntutan hazi da elebidunen kopurua (751.000 elebidun, 1991an baino 223.000 gehiago). Adin taldeetako datuek agerian uzten duten bezala, kasu honetan, eremu guztietan, belaunaldi berriak euskalduntzeko hezkuntza-sistemak eginiko ekarpenaren ondorioa da nagusiki. Kontuan hartzekoa da, ordea, helduek dutela pisu demografiko nagusia, eta gaur gaurkoz 1.890.000 biztanle direla oraindik elebidun izatera heldu ez direnak, eta horietatik 1.460.000 erdal elebakarrak (beraz, elebidun hartzaileak 400.000tik gora dira) direla. Horrela, azken 25 urteotako urteko batez besteko hazkunde tasari eutsiko balitzaio 130 urte beharko lirateke ezagutza unibertsalizatzeko. Gehiago ere, kontuan hartzen bada, jaiotze-tasa apala eta gizartearen zahartze-prozesua. Erritmo motelegia beraz, normalizazio prozesua bera kolokan jar lezakeena.</li><li>• Argi dago adin taldeei erreparatuta, belaunaldi berrietan ezagutzaren bilakaera baikorra dela. Kontua da, adin talde horiek gaur gaurkoz pisu demografiko oso txikia dutela. Aldiz, erdal elebakar gehien biltzen dituen 35 urtetik gorako multzoak pisu demografiko nagusia du.</li><li>• Azkenik, herrialde eta hiriburuen egoerari erreparatzen bazaio. Argi ikusten da kasu guztietan herrialde bakoitzeko hiriburua, herrialdea baino erdaldunduagoa dagoela. Kasu nabarmenenak Bilbo eta Donostia izango lirateke -9 eta 15 puntuko aldearekin hurrenez-hurren-. Horrek garrantzia berezia izan dezake, hiriburuak herrialde osoari zerbitzua eman ohi baitiote eta herrialde guztiko herritarrak erakarriz eurengan eragin zuzena baitute. Lurralde antolaketaren ikuspegitik gainera, komunikabideen aldetik (errepideak, garraiobideak...) agerikoa da hiriburutan zentratutako antolaketa erradiala. Kasu horretan, Gipuzkoa, hein batean, salbuespena izan baliteke ere.</li></ul>

8 Konparaketa egin ahal izateko Ipar Euskal Herriko datuak falta zaizkigu atal honetan.

<b>Zenbait proposamen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen ezagutza unibertsala eskuratzeko epeak murriztu behar dira. Horretarako, murgiltze-eredua orokortzera jo beharko litzateke.</li> <li>• Datuek agerian uzten dute gizarte-bizitzan zeresan eta eragin handiena duen eta gainera, demografiko multzorik handiena osatzen duen 35 urtetik gorako herritarren lanketa ezin dela bazterrekotzat jo. Alegia, bada garaia helduen euskalduntzea doakoa izateko neurriak hartu eta pertsona horiei motibazioak eta lantokian erraztasunak emateko, euskara ikasi dezaten.</li> <li>• Adin-taldeei dagokienez, eremu bakoitzean abiapuntu desberdinak dauden arren, aurreikusi liteke epe ez oso luzean 24 urtetik beherakoen ezagutzak %75etik gorakoak izatea. Hori horrela, horiei begira arnaguneen eredian oinarritutako hizkuntza-politikak garatu beharko lirateke. Hau da, hezkuntza-sistematik hasi eta 24 urteko herritarrengana bideratutako zerbitzu eta produktuak (aisialdia, kirola, zinema...) euskaraz eskaintzeko politikak garatuz. Horretaz gain, belaunaldi berri hori gizarte bizitzara, lan-mundura heltzen denerako, jarduera horiek euskaraz eroso garatu ahal izateko aukera bermatu beharko zaie. Hori guztia, beraz, gaurdanik prestatzen joan beharko litzateke. Hala egin ezean, gizarte-bizitzak horiek erdalduntzeko joera nagusituko baita.</li> <li>• Hiriburuetan, horien eragina kontuan hartuta, normalizatorako izaera estrategikoa aitortu behar zaie. Horrek eremu horietan hizkuntza-politika aurreratuak garatzea eta baliabidez egoki hornitzea esan nahi beharko luke. Horrela, euren herrialdea euskalduntzeko gurdi izaera utzi eta traktore funtzio bete dezaten.</li> </ul>
---------------------------	--

## B. GAITASUN-ERLATIBOA

<b>Datu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Herriko eta eremu administratibo guztietako datuetan, elebidunen arteko multzo nagusia, erdal elebidunena da (EH: %45, EAE: %44, IEH: %41, NAF: %51), ondoren elebidun orekatuena (EH: %30, EAE: %30, IEH: %38, NAF: %26), eta azkenik, kasu guztietan, elebidunen arteko multzo txikiena osatzen dute euskal elebidunena (EH: %26, EAE: %27, IEH: %21, NAF: %23).</li> <li>• Adinean behera egin ahala, erdal elebidunen multzoa gero eta handiagoa da (&gt;=65: 33,8, 50-64: 39,5, 35-49: 45, 25-34: 46,8, 16-24: 56,7). Elebidun orekatuena berriz -65 urtetik gorakoak aparte utzita- gero eta txikiagoa da (&gt;=65: 24, 50-64: 35,9, 35-49: 34,9, 25-34: 30,3, 16-24: 19,5). Aldiz, euskal elebidunen bilakaera gorabeheratsua da (&gt;=65: 42,2, 50-64: 24,6, 35-49: 20,1, 25-34: 30,3, 16-24: 23,8). Euskal elebidun gehien 65 urtetik gorako adin tartean dago.</li> <li>• 1991tik 2016ra bitartean 35 urtetik gorako kasuan, erdal elebidunak hazi egin dira. 25-34 urtekoen artean murriztu egin dira, eta 24 urtetik beherakoen kasuan, berriz, hazi.</li> <li>• 1991tik 2016ra bitartean 35 urtetik gorako kasuan, elebidun orekatuak hazi egin dira. 34 urtetik beherakoen kasuan berriz, murriztu egin dira.</li> <li>• 1991tik 2016ra bitartean 35 urtetik gorako kasuan, euskal elebidun murriztu egin dira. 34 urtetik beherakoen kasuan berriz, hazi egin dira.</li> </ul>
<b>Zenbait ondorio</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elebidunen artean, erabilera eroso egiteko gaitasuna izateko, euskal elebidun edota elebidun orekatua izan behar denez, gaitasun maila hori lortu ezean, nekez egingo da erabilerarako jautzia. Gaitasun-maila hori duten elebidunak soilik aintzat hartuta, elebidunen multzoa %15,76ra murriztuko litzateke (751.000tik, 417.000ra. EA Eren kasuan %33,9tik %14,9ra eta Nafarroaren kasuan berriz, 1%2,9tik %6,6ra).</li> <li>• (Ia) soilik hezkuntza sistemaren bizkar garatutako euskalduntze prozesuak gazteen erdaldun elebakar askoren kasuan, gehienera erdal elebidun izate erdietsi du. Horren ondorioz,</li> </ul>

	<p>elebidun gazteen artean, gero eta multzo zabalagoa horixe da, hain zuzen ere, 16-24 urte bitarteko multzoan, erdal elebidunak nagusi izateraino.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Adin taldeen bilakaera aztertuta, elebidun tipologia berria nagusitzen ari dela dirudi. Adin talde gazteenetan 16-24 elebidun orekatuen multzoa murrizten ari da eta euskal elebidunak edo erdal elebidunak dira nagusi. Bi horien artean, noski, erdal elebidunen multzoa dezente handiagoa da. Etorkizunean ere elebidunen multzoa nagusiki adin tarte horretatik elikatu dela jakinik, ondorengo urteetan, neurririk hartu ezean, elebidunen multzoan erdal elebidunek gero eta pisu handiagoa izango dute.</li> </ul>
<b>Zenbait proposamen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Belaunaldi berriak erdal elebidun izatetik elebidun orekatu edota euskal elebidun izatera igarotzeko, garrantzia berezia eman beharko litzaioke ikastetxeetan ahozketasunaren lanketari. Horrekin batera, beharrezkoa litzateke Curriculumaren euskal dimentsioan sakontzea belaunaldi berrien euskararekiko atxikimendua areagotzeko.</li> <li>• Modu berean, hezkuntza-sistematik eginiko lanketa ikastetxera mugatu ordez, hezkuntza-komunitate osora (ikasgela, ikastetxea, familia, auzoko/herriko hezkuntza ez formala...) zabalduz.</li> <li>• Aurretik aipatu gisan, izaera estrategikoa du 24 urtetik beherakoei begira euskara eroso erabiltzeko aukerak biderkatzea. Horretarako, espazioak euskaldunduz eta helduen munduak gizarte bizitzarako ezarritako hizkuntza ohiturak edota portaera patroik hegemoniak aldatzeko politikak bideratuz.</li> </ul>

### C. LEHEN HIZKUNTZA

<b>Datu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 79,5 L1 erdara</li> <li>• %5,4 L1 euskara eta erdara</li> <li>• %15,1 L1 euskara</li> <li>• EAEn eta Nafarroan antzeko datuak agertzen dira (EAE: L1 erdara %76,4, L1 biak %6 eta L1 euskara %17,5. IEH: L1 erdara %78,2, L1 biak %5,8 eta L1 euskara %78,2). Aldiz, datu kaxkarragoak jaso dira Nafarroan: L1 erdara %90,8, L1 biak %3,1 eta L1 euskara %6,2.</li> <li>• Herrialdeka: Nafarroa Beherean eta Zuberoa biltzen dituen eremua jaso dira datu baikorrenak (L1 erdara %43,5, L1 biak %9,7 eta L1 euskara %46,8). Ondoren datoz Gipuzkoako datuak (L1 erdara %59,2, L1 biak %7,9 eta L1 euskara %32,9). Hirugarrenik, Bizkaiko eta Lapurdiko datuak antzekoak dira (Bizkaia: L1 erdara %82,4, L1 biak %5,7 eta L1 euskara %11,9). Laugarren herrialdea Nafarroa litzateke (L1 erdara %90,8, L1 biak %3,1 eta L1 euskara %6,2). Lehen hizkuntzari dagozkion datu kaxkarrenak berriz Arabakoak dira (L1 erdara %93, L1 biak %3,2 eta L1 euskara %3,8).</li> <li>• Oro har, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara dutenen portzentajea 1991tik 2,5 puntu murriztu da. Murrizketa hori 35 urtetik gorako adin tarteei zor zaie (16,1 puntuko galera), 35 urtetik beherakoen kasuan lehen hizkuntzetako bat euskara izan dutenen portzentajea 8 puntu igo baita. Aurrerago ikusiko dugun bezala, beraz, familia-transmisioan hobekuntzak nabari dira (24 urtetik beherakoen kasuan 6 puntuko igoera).</li> <li>• Edozein kasutan, nabarmentzen den beste fenomeno hazkorra bi hizkuntzen transmisioari lotutakoa da. Adin taldeei begiratuta, adin-talde nagusienetan nahiko bazterreko fenomenoak zen, 34 urtetik beherako adin taldeetan indarra hartzen ari da (25-35: %7,3, 16-24: %9,1).</li> <li>• Elebidunen multzoari soilik begiratuta, argi dago multzo hori nagusiki lehen hizkuntza erdara dutenen multzoa bereganatuzetik (hezkuntzaren bidez. 1991: %13,6tik 2016: %36,2ra) handitu</li> </ul>
-----------------------	---

del. Ondorioz, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara duten elebidunen multzoa dezente murriztu da (%86tik %64ra). Joera hau adin tarte guztietan errepikatzen da, bilakaera handiena 16-24 urte bitarteko multzoan eman delarik (L1 gutxienez euskara: %74,5etik 1991ean %45,7ra 2016an)

- Familia transmisioari dagokionez, aurreko puntu batean iradoki bezala, emaitza baikorrak jaso dira. Bi gurasoak euskaldunak izanik (L1 euskara gutxienez: %87,3, L1 euskara: 79,1). Adin taldeka, geroz eta gazteago orduan eta transmisio datu altuagoa izanik (16-24 urtekoetan L1 euskara gutxienez: %92,7, L1 euskara: %86,6)
- Guraso batek euskara ez dakienean, logikoa denez, kopuru horiek dezente murrizten dira (%38,7). Halere, baikortasunez begiratu beharko genuke adinean behera egin ahala murrizketa hori are eta apalagoa dela (16-24 urtekoetan (%54,3)).
- Ondotik, familia-transmisioa gurasoen lehen hizkuntzarekin gurutzatuta aztertzen da. Lehen-hizkuntza euskara den kasuetan transmisio maila altuagoa jasoaz, lehen hizkuntza erdara den kasuetan baino. Esango genuke ordea, lehen-hizkuntzaren baino korrelazio estuagoa izan dezakeela, eta hori aztertzea komeniko litzatekeela, familia-transmisioa zenbat aldatzen den gaitasun erlatiboaren arabera. Alegia, gurasoak euskal-elebiduna, elebidun orekatua edo erdal elebiduna diren kasuetarako.

## Zenbait ondorio

- Familia-transmisioaren datu baikorrak azpimarratu behar ditugu. Baikorra da batez ere bi gurasoak elebidunak diren kasuetan. Eremu horrek, gainera, garrantzia berezia du. Batetik, belaunaldi berrietan hizkuntza horrekiko sor dezakeen lotura afektiboari dagokionez. Bigarrenik, pertsona horien eremu intimo eta pertsonalean, hizkuntza erabilerari dagokionez gizarteko beste instituzio eta egituren eragin apalenetakoa izango duen eremuan, egiten duten hautu partikularra delako. Hirugarrenik, guraso horiek euren seme-alaben etorkizuna zer nolakoa nahiko luketen proiektatzen dutelako eurek transmititzen diotenaren bidez. Bi gurasoak euskaldunak izanik lortzen den transmisio-maila altuak (%87,3) beraz, agerian jartzen du euskaldunok euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko nahia. Bai eta inguru sozialeko baldintzek kontrara gehiegi eragiten ez dutenean, euskaldunok euskara erabiltzeko joera.

### GUZTIRA

L1 EUS	14,3	>>>	Euskal elebidun	7,38
		>>>	Elebidun orekatu	6,92
L1 BIAK	3,9	>>>	Elebidun orekatu	1,46
		>>>	Erdal elebidun	2,44
L1 ERD	81,9	>>>	Erdal elebidun	10,20
		>>>	Elebidun hartzailea	16,40
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	55,30

### 16-24 ADIN TARTEA

L1 EUS	16,5	>>>	Euskal elebidun	13,19
		>>>	Elebidun orekatu	3,32
L1 BIAK	8,8	>>>	Elebidun orekatu	7,48
		>>>	Erdal elebidun	1,33
L1 ERD	74,7	>>>	Erdal elebidun	30,08
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	44,60



**25-34 ADIN TARTEA**

L1 EUS	16,5	>>>	Euskal elebidun	9,09
		>>>	Elebidun orekatu	7,42
L1 BIAK	8,8	>>>	Elebidun orekatu	4,61
		>>>	Erdal elebidun	4,20
L1 ERD	74,7	>>>	Erdal elebidun	14,38
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	60,30

**35-49 ADIN TARTEA**

L1 EUS	21,1	>>>	Euskal elebidun	5,47
		>>>	Elebidun orekatu	6,66
L1 BIAK	3,9	>>>	Elebidun orekatu	2,83
		>>>	Erdal elebidun	1,03
L1 ERD	84,0	>>>	Erdal elebidun	11,21
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	72,80

**50-64 ADIN TARTEA**

L1 EUS	13,4	>>>	Euskal elebidun	5,26
		>>>	Elebidun orekatu	8,09
L1 BIAK	2,5	>>>	Elebidun orekatu	0,41
		>>>	Erdal elebidun	2,87
L1 ERD	84,2	>>>	Erdal elebidun	5,59
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	78,60

**>=65 ADIN TARTEA**

L1 EUS	17,1	>>>	Euskal elebidun	8,61
		>>>	Elebidun orekatu	8,45
L1 BIAK	1,7	>>>	Elebidun orekatu	3,55
		>>>	Erdal elebidun	5,24
L1 ERD	81,3	>>>	Erdal elebidun	1,65
		>>>	Erdal elebakar + elebidun hartzaile	79,60

- Interesgarria da, lehen hizkuntza gisa euskara edo euskara eta erdara jaso duten elebidunen bilakaera aztertzea. Hau da, etxean hori jaso ondotik, gaur egun euren gaitasun-maila erlatiboa non kokatzen den: euskal elebidun, elebidun orekatu edo erdal elebidun. Pentsa liteke, euskara jaso dutenak euskal elebidun izango direla hein handi batean eta biak jaso dituztenak elebidun orekatuak. Datuek bestelakoa erakusten dute, hau da, etxean euskara soilik jaso dutenen multzoa euskal elebidunena baino handiagoa da. Hori adin-tarte guztietan gertatzen da eta, gainera, adinean gora egin ahala joera gorakorrekin. Horrek esan nahi du, multzo horretako batzuk elebidun orekatu, erdal elebidun edo erdaldun izatera igaro direla. Finean, gizarte-bizitzak lehen hizkuntza euskara duten horiek erdalduntzen ditu (gutxienez multzo horren %48a; erdaldundu da). Gero eta gehiago, adinean gora egin ahala.
- Zer geratzen da orduan elebidun orekatuekin? Bada, multzo hori bi aldeetatik elikatu liteke, L1 erdara izan duten multzotik (euskaldunduz) edo L1 euskara izan dutenetatik (erdaldunduz).





	<p>Aurreko ondorioa aintzat hartuta, erdaldunduz joan diren L1 euskara zuten multzokoak hona igaro direla pentsa dezakegu (ez dutela gaitasuna gehiago galdu). Datuak ikusita, L1 euskara zuten euskal elebidunen multzoaren murrizketa baino txikiagoa da talde horren hazkundera. Hortaz, ondorioztatu liteke, L1 euskara zutenak multzo horretara pasa badira, multzo horretako kide batzuk erdal elebidun, elebidun hartzaile edo erdaldun elebakar izatera pasa behar izan direla (gutxienez multzoaren %63). Alegia, lehendik esandakoa berretsiz, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zuten hainbat elebidun gizarte-bizitzak erdaldundu ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Azkenik L1 erdara zuten multzoa eta heldutan erdaldun elebakarren eta elebidun hartzaileen multzoak konparatuta, ondoriozta liteke, azken multzo hori murriztu denez, jende asko euskaldundu dela.</li> </ul>
<p><b>Zenbait proposamen</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Premiazkoa da, guraso izatera doazen horiek lehentasunez euskalduntzeko helduen euskalduntze eta alfabetatzeko programak abiatzea. Arreta berezia bikote mistoetan jarriz eta programa horietan parte hartzeko doako eskaintza eta sustapen lana burutuz.</li> <li>• Garrantzitsua da guraso izango direnei hizkuntzen kudeaketaren inguruko argibideak eta irizpideak helaraztea. Horrela, bi gurasoak euskaldunak diren kasuetan, bi hizkuntzak transmititu nahi izatea baino, euskara transmititzeko formazio eta sentiberatze lanketa garatu beharko litzateke. Bietako batek euskara ez dakienean, bi hizkuntzan transmititzearen garrantzia helaraziz eta biak erdaldun elebakarrak direnean, euskararekiko interesa transmititzeko argibideak emanez. Horretarako, haurdunaldien laguntza eta jarraipenean parte hartzen duten osasun zerbitzuekin programa espezifikoak garatuz.</li> <li>• Horrek, noski, guraso izatera doazen horiei begirako osasun asistentzia euskaldundu beharra agerian jartzen da. Bai eta, lehentasunez, umearen arretaz arduratzen den pediatria zerbitzua ere.</li> </ul>

## D. ERABILERA

<p><b>Datu nagusiak:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• %16,5ek euskara erdara beste edo gehiago</li> <li>• %74,3k erdara erabiltzen du beti</li> <li>• Alde handiak daude eremu administratiboaren (EAE: %20,1, IEH: %8,1, NAF: %6,6) eta herrialdearen arabera (nahiko antzekoak dira Araban (% 5,6) eta Lapurdin (% 5,2). Ondoren datoz Nafarroan (% 6,6) eta Bizkaia (% 13). Erabilera altuenak berriz, Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 27,9) eta Gipuzkoan (% 39,5)).</li> <li>• 1991tik bilakaera baikorra du erabilerak, 2,8 puntu igo da. EAEn hazkunde jarraitua izan du (15,6tik 20,5era), Nafarroan gorabeherak izan arren, batez ere azken bost urteko igoerari esker (1,1 puntu) 1991tik 0,6 puntu igo da erabilera eta Ipar Euskal Herrian berriz, beherakada jarraitua du (13,3tik 8,1era).</li> <li>• Oro har euskarak erabilera-eremu guztietan egin du gora. Etxean ere gora egin du, alde nabarmena dago ordea bikotekidearekin jasotako euskararen erabilera trinkoaren eta seme-alabekin jasotakoaren artean (12,1 eta 18,7 hurrenez hurren).</li> </ul>
<p><b>Zenbait ondorio</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilerak, oro har, gora egin du inkestan definitutako gizarte arlo guztietan (etxea, lagunak, lana, dendak, bankuak, osasun zerbitzuak eta udal zerbitzuak). Eremu administratiboetara lotuta, aldiz, kezkarria da Ipar Euskal Herriko etenik gabeko joera beherakorra.</li> <li>• Adin-taldeein dagokienez, 49 urtetik beherakoetan erabilera igo egin da eta hortik gorakoetan</li> </ul>

jaisi, 1991ko datuekin alderatuz. Horrela, adinean behera egin ahala erabilerak goranzko joera du.

- Adin taldeka euskal elebidunak eta elebidun orekatuak bateratuta, adin taldekako erabilera trinkoarekin gurutzatzen baditugu, emaitzak argi uzten du bi fenomeno horien arteko lotura eta gaitasun-maila horretara jasotzen den erabilera altua dela esan dezakegu. Berdina gertatzen da eremu administratiboaren araberrako gaitasun-maila horiek erabilera trinkoarekin gurutzatzen baditugu. Kasu honetan, Ipar Euskal Herriaren kasua berezitat jo genezake. Bertan bi aldagaien aldea besteetan baino handiagoa baita, 3,9 puntu, erabilera trinkoaren kaltetan.



- Ondorio orokorretan aipatu bezala, erabileraz hitz egiteko garaian, kontuan hartzekoak dira erabilera erosoerako baldintzak. Alegia, herritarrek ahalegin berezirik egin behar izan gabe euskara eroso erabiltzeko zer nolako baldintzak behar diren eta zer-nolakoak dauden.
- Aurreko puntuan aurkeztutako datuetatik bi ondorio atera genitzake: Batetik, pentsa liteke erabilera trinkoa aitortzen duten gehienak euskal elebidunak eta elebidun orekatuak direla. Hortaz, multzo horretako erabilera-maila altua agerian jarriko litzateke. Bestetik, erabilera trinkoa egin ahal izateko, badirudi gutxienez elebidun orekatua izatera heldu behar dela. Hori gabe, aipatu bezala, ez legoke erabilera erosorik eta zaila dirudi luzaroan halako erabilera bati eustea.

### Zenbait proposamen

- Erabilera erosoerako baldintzak sortzeko politika publikoak garatu behar dira, bai norbanakoei begira, bai eta gizarte egituretan aldaketak eragiteko. Bide horretan:
  - Argi dago, aurreko ataletan azaldutako bidetik (hezkuntza+helduen euskalduntzea), elebidun orekatuen multzoa zabaltzeko politikak sendotu behar direla.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bistakoa ere bada elebidun orekatuak lortzeko aipaturako eremuez gain euskaraz sozializatzeko espazio- edo jardun-gune gehiago eskaini behar direla. Hau da, elebidunek euskaraz egiteko aukerak biderkatu eta ohikotasunez euskaraz jardungo diren espazioak (arnasguneak) sortu, zabaldu eta saretu.</li> <li>• Aurrekoari lotuta, badira garrantzia berezia duten eremu ; batetik, hizkuntza-eskubideen bermearen ikuspegitik eta, bestetik, botere-gune diren neurrian, hizkuntzaren prestigioa areagotzeari begira. Zentzu horretan ezinbestekoa litzateke; lehenik, administrazioa eta bere zerbitzuak euskalduntzea; bigarrenik, hezkuntzako goi-mailako ikasketetan (Lanbide Hezkuntzan eta Unibertsitatean) euskara irakastea eta euskaraz irakastea; eta hirugarrenik, arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko orain artekoak baino politika aurrerakoiagoak garatzea.</li> </ul>
--	--

## E. JARRERAK

<b>Datu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera sustatzearen alde daude herritar gehienak (%58,8), ez alde ez aurka (%28,2) eta aurka (%16). Azken 20 urteotan jarrera horiek bilakaera baikorra izan dute (+8.3 alde, -2,9 ez alde ez aurka eta -4,9 aurka).</li> <li>• Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 85,3, euskaldun hartzaileen % 61,2 eta erdaldun elebakarren % 39.</li> <li>• Eremu administratiboaren arabera jarrerak dezente aldatzen dira (EAE: alde %65, kontra 9,3 / Ipar Euskal Herria: alde %47,5, kontra %17,1 / NAF: Alde %39,1, kontra %39,1).</li> </ul>
<b>Zenbait ondorio</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuek erakusten dutenarengatik hizkuntza-politika aurrerakoiagoa garatzea jendeak begi onez ikus dezakeela dirudi.</li> <li>• Jakin dakigu ordea, iritzi eta jarrera horiek landu egin behar direla. Besteak beste, batzuek euskararen normalizazioaren aurkako norabidean egin duten lanak azal ditzake Nafarroako datuak.</li> </ul>
<b>Zenbait proposamen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-politika edo politika publikoak garatzeaz batera, horiek ahalik eta harrera onena izan dezaten jendartean eta horrela are eta eraginkorragoak izan daitezen, berariazko lanketa garatu behar da. Lanketa horrek bi jardun-ildo aurreikusi beharko litzuzke.</li> <li>• Batetik, euskararen sustapenaren aldeko iritzi eta jarrerak sustatzeko komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak burutzea.</li> <li>• Bestetik, berriz, euskalgintzak jendearen iritzi eta jarreretan paper garrantzitsua jokatzen duenez, komenigarria litzateke politika aurrerakoiak euskalgintzak eta instituzioek lankidetzan definitzea eta ondotik, bakoitza bere funtziotik konplizitatez jardutea.</li> </ul>


## F. KALE ERABILERA

<b>Datu nagusiak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen kale erabilera azken hamar urteotan jaitsi da, Euskal Herrian eta adin-talde guztietan. (EH: %13,7tik %12,6ra).</li> <li>• Lurraldeei dagokienez, Bizkaian jaitsiera hori duela 15 urte hasi zen eta jarraitu egin du (BIZ: %8,8), Gipuzkoan jaitsiera azken bost urteetan izan da (GIP: %31,1), Araban eta Nafarroan</li> </ul>
-----------------------	--

- datuak nahiko egonkorak diren arren, azken bost urteotan bietan gora egin du (ARA: %4,6, NAF: %6,7). Ipar Euskal Herrian beheranzko joerak ez du etenik izan 1997tik (IEH: %5,3)
- Eremu soziolinguistikoen arabera aztertuta, euskararen ezagutza gutxiagoko eremuetan (%50etik behera) euskararen erabilera egonkor dago eta ezagutza gehiagoko eremuetan atzera egin du.
  - Hiriburuetako erabilerek herrialdekoen antzeko patroia jarraitzen dute. Horrela, Gasteizen eta Iruñean izan ezik (%3,7 eta %2,9ko erabilera hurrenez hurren), gainerako hiriburuetan beheranzko joera ematen da (Bilbo %2,5, Baiona %1,9, Donostian %15,2).
  - Adin taldeei begiratuta, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. (haurrak %18,3, gazteak %12,3, helduak %11,5 eta adinekoak %8,1). Herrialdez herrialde antzeko joera errepikatzen da, baina Bizkaiaren eta Ipar Euskal Herriaren kasuan adinekoen erabilera gazteenaren gainetik dago.
  - Emakumezkoek gehiago egiten dute gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Alde nabarmenena gazteetan ematen da (E: %13,6, G: %10,9).
  - Haurren presentziak eragin nabarmena du kale-erabileran. Erabilera-maila altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean izaten da (%19,3). Bigarrenik erabilera-maila altuena haurrak bakarrik daudenean (%13,5) izaten da. Erabilera baxuena, berriz, nagusiak bakarrik daudenean (%8,6). Joera herrialde guztietan errepikatzen da Araban izan ezik, bertan nagusiak bakarrik daudenean haurrak bakarrik daudenean baino erabilera altuagoa da (%2,7 eta %2,1 hurrenez hurren). Bilakaerari begiratuta, haurren arteko erabilera jaitsi da azken hamar urtean (2006: %17,1, 2016: %13,5) eta beste bi multzoak nahiko egonkor mantendu dira. Lurraldeka begiratuta, bereziki deigarria suertatzen da haurren arteko erabileran izaniko beherakada Gipuzkoaren kasuan (2006: 50,2, 2016: 40,5).

## Zenbait ondorio

- Euskararen kale erabilera bere horretan altua edo baxua den jakiteko, gutxien-gutxienik euskararen gaitasunaren datua behar dugu. Horrekin zuzenean konparatzeaz gain, jarraian, erabilera erosoerako gaitasun-mailarekin (elebidun orekatuak+euskal elebidunak) ere konparatu dugu:




- Horrekin batera, erabilera erosoako ezagutza eta erabileraren arteko eraginkortasun indizeak<sup>9</sup> kalkulatu ditugu:

#### ERABILERA EROSORAKO EZAGUTZAREN ERAGINKORTASUN INDIZEA

1991	2001	2011	2016
84,94	93,50	86,47	79,94

- Lehendik adierazi bezala, grafiko horrek ere erabilera erosoako gaitasunaren eta erabileraren arteko harreman estua agerian jartzen du. Datuen arabera, erabilera oro har altua dela esan genezake, eraginkortasun-indizea ere horren erakusle. Edozein kasutan, 2001etik aurrera erabileraren eta eraginkortasun indizearen beheraka nabaritzen da.
- Horien garrantzia berezia eta izaera ezagututa, interesgarria da zonalde euskaldunen edo arnaguneen bilakaera aztertzea. Jarraian dituzue, eskura genituen datuekin, elebidunak eta kale-erabilera gurutzatuz osatutako grafikoa eta kalkulaturako eraginkortasun indizeak.



#### ELEBIDUNEN ERAGINKORTASUN INDIZEA

1991/1993	2001	2011
84,19	83,97	91,98

- 2001etik elebidun kopurua beherantz joateak, dudarik gabe, erabilera eragin du, baina oraindik ere, ikusten denez, erabilera-maila altuei eusten zaie arnaguneetan. Aurreko konparaketetan ez bezala, erabilera elebidun guztiekin gurutzatuta, elebidun orekatuekin eta euskal elebidunekin gurutzatutakoan kalkulaturako eraginkortasun-indize antzekoak edo altuagoak ematen ditu. Horrek hipotesi desberdinei erantzun diezaike. Batetik, arnaguneetako elebidun gehienak orekatuak edo euskal elebidunak izatea. Bestetik, halako gaitasunik izan ez arren, erdal elebidunen erabilera arnaguneetan beste eremu soziolinguistikoen gainera egotea.
- Ikusten denez, beharbada, Donostiako kasua kenduta, gainerako hiriburuetan euskararen kale erabilera nahiko isolatua da. Zentzu horretan adierazgarria da Donostian ez beste hiriburuetan gaitasunak eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabileraren parean edo azpitik egotea euskararen kale-erabilera.

<sup>9</sup> Eraginkortasunindizea: Eraginkortasun Indizea = 100 \* Erabilera (%) / Ezagutza (%) <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/1378>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989tik 2016ra), haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du. Adinekoenak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Halere, azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da. Bilakaera-datuek aukera ematen dute haurren multzo osoa gazte izatera igarotakoan izandako ibilbidea ikusteko. Horrela, oro har, esan daiteke haurren multzoa gazteen adin tartera heltzeko bidean horien erabilera jaitsiz joaten dela.</li> <li>• Haurren presentziaren eragina etengabea izan da kale-erabileraren neurketetan. Azken bi neurketetan, ordea, nabarmentzekoa izan da haurren arteko erabileran murrizketa. Hori Bizkaiko (%11,4tik %8,3ra) eta, batez ere, Gipuzkoako (%50,2tik %40,5era) murrizketen ondorioa dela esan liteke. Halere, aitortu behar da, Gipuzkoako haur eta nagusien arteko erabilera datua (%44,6) eta horrek beste herrialdeetan haurren erabilerarekin duen lotura ikusita, haurren arteko erabilerak ez dirudi hain baxua.</li> </ul>
<b>Zenbait proposamen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emaitzek agerian jartzen dituzte hezkuntza-sisteman errotutako euskalduntze-prozesuaren mugak. Hezkuntzan irabazten diren elebidunetako asko ez dira euskaldun funtzional izateko behar beste gaitzen. Besteak beste euren ingurune soziolinguistikoan ere ez dute horretarako behar besteko espaziorik (aisialdia, kirola,...). Ondorioz, eskolan euskara jaso duten horiek, erabilerarako aukerarik ezean, erdaldunduz doaz gizarte-bizitzan. Horri aurre egiteko, beraz, belaunaldi berrien gizarte-bizitzako jarduera-eremuak euskalduntzeko neurriak hartu behar dira. Jarduera horietarako arnagune soziofuntzionalak eskainiz.</li> <li>• Eskaintza hori belaunaldi berriak guraso izan arteko epealdira luzatzeak garrantzia berezia du. Hau da, belaunaldiz belaunaldiko transmisio-katea bermatzeko, 0-35 urte bitarteko gizarte-bizitza euskalduntzeak garrantzia berezia hartzen du. Horrela, adin-tarte horretan garatzen diren jarduerak, erabili edota kontsumitzen diren produktuak euskaraz eskaintzeari lehentasuna eman beharko litzaioke.</li> <li>• Arnaguneetan beste inon baino nabarmenago geratu da agerian hizkuntza-politikaren zeharkakotasunaren beharra. Edo bestela esan nahi bada, politika publiko guztietan hizkuntza-normalizazioaren ikuspegia txertatu beharra dago. Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldietan ikusi genuen bezala udalerrri euskaldunetan azken urteotan gertatu den euskararen gaitasunaren datuaren beherakada, ez dute nagusiki hizkuntza-politika sailetatik bideratutako politika publikoek esplikatzen. Aitzitik, etxebizitza politika eta mugikortasun politika daude fenomeno horren atzean kausalitate dezente handiagorekin. Hortaz, eremu horien garrantzia jakinik, arnaguneen garapen soziokulturala eta sozioekonomikoa bultzatzeko neurri zehatzak hartu behar dira arlo guztietatik. Bide batez esan, proposamen hori aplikagarria dela bai eta lur eremu erdaldunagoetan egon litezkeen arnagune soziofuntzionaleri begira ere.</li> </ul>



[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)



[www.twitter.com/kontseilua](https://www.twitter.com/kontseilua)



[www.facebook.com/EuskararenKontseilua](https://www.facebook.com/EuskararenKontseilua)